

PRIMERAN! **B2.1**

EUSKARA IKASTEKO METODOA

IRAKASLEAren gidaliburua

HADE

Primeran! B2 eskuliburuak B2 mailako gaitasun komunikatiboa lortzeko ikasibilbide egituratua eta gidatua eskainiko dio euskara-ikaseari **jardun biko ikastereduan eta ekintzara bideratutako metodologian oinarrituta**.

Eredu hori bideratzeko zehaztu dira irakaslearen gidari-lanak, ondo planifikatua izan dezan proposatutako denbora-lerroa: aurrez aurreko saioetan egitekoak eta horien aurretik nahiz ondotik izango den dinamika.

Nolanahi ere, Primeran! B2 ikasmateriala **metodo irekia eta malgua da**; irakaslearen esperientziak eta ikasleen erabilerak emango dizkiote nortasuna eta izaera, bakoitzaren egoerara eta lekura, ikastaldearen beharretara eta tokian tokiko egoera soziolinguistikora moldagarria baita.

Gidaliburu honen diseinuari dagokionez, Ikaslearen Liburua hartu da oinarri. Ikaseari aurkeztu zaion jarduera bakoitzaren alboan txertatu dira irakasleei proposatutako gidari-lanak prozedura-koadroetan. Hala, ikaseari aurkeztu zaion edukiaren ingurumarian jasoko ditu gidari-rolean izan ditzakeen egitekoak, eta, hein berean, ikasleak eskuartearen duen langaiaren ikuspegia ere euskarri izango du.

Jardun biko ikasteredurako proposamena

Primeran! B2k **200 ikastordu** proposatzen ditu, ikasgelan eta ikasgelatik kanpo gauzatzeko. Ikas-tunitate bakoitzak 10 ikastordurako jarduerak eskainiko ditu, beraz, honela banatuta: **90 ikastordu ikasgelan**, taldean aurrez aurre eta elkarerraginean garatuko dira; gainerakoak **ikasgelako saioen aurretik —30 ikastordu— eta ondoren —80 ikastordu—** egin beharreko jarduerak osatuko dituzte, gehienetan bakarka burutzekoak. Honako eskema honetan ikusten da jardueren pisua metodoan:

JARDUERAK	IKASTORDUAK
Saioen A atala: prestaketa-jarduerak	% 15
Ikasgelako taldeko ikas-jarduerak	% 45
Kontuan Hartu ataleko bakarkako finkatze- eta sendotze-jarduerak	% 30
Kontuan Hartu ataleko taldeko finkatze- eta sendotze-jarduerak	% 10

Primeran! B2k, jardun biko ikasteredua garatzeko, **gela irauliaren** metodologia ahalbidetzen du, irakaslea gidari delarik ikasesparruak irauli edota malgutasunez konbinatzeko aukera ematen baitu.

- **Ikasgela** komunikazio- eta elkarerragin-gunetzat hartu da, eta bertan garatuko dira mailari dagozkion ekintza komunikatiboak.
- **Gelaz kanpokoa** lan autonomoa garatzeko esparrua izango da:
 - » **Ikasgelako saioen aurreko jarduerak**: hipotesiak egin, aurrezagutzak martxan jarri eta eduki berrien aurrean interesa pizteko uneak eskainiko dira, baita testuak irakurri nahiz entzuteko uneak proposatuko ere. Jarduera hauen helburua da ikasleek ikasgelako saioa prestatzea.
 - » **Ikasgelako saioen ondorengo jarduerak**: ikasgelan landutako edukiak finkatzeko eta ikasgelatik kanpo bakarka nahiz beste ikaskideekin elkarerraginean aritzeko izango dira. Ikasleak aukera izango du hizkuntzaren alderdi zehatzak hobeto ezagutzeko, finkatzeko nahiz ebaluatzeko: fonetika, morfosintaxia, hiztegia, ortografia, egitura funtzionalak, diskurtsiboak eta testualak.

Primeran! B2 web-ataria



Primeran! B2 eskuliburuaren osagarri guztiak eskuragarri daude www.primeranb2.ikasbil.eus atarian:

- **Entzungai, bideo eta testu osagarriak** ikastunitateka multzokatuta daude. Ikasleak oso erraz topatuko du une bakoitzean behar duen dokumentua, liburuan aurkituko duen QR kodearen bidez.

Ikus-entzunezko horietan, askotariko egoera, genero... aurkituko ditu ikasleak. Hizkuntzaren erabilera natural eta arruntarekin jarriko da harremanetan, eta hainbat hitz egiteko molde ezagutuko ditu; izan ere, orekatuta daude materialerako berariaz sortutako ikus-entzunezkoak eta euskarazko hedabideetatik hartutakoak.

- **Moodle Primeran! B2 ikastaroa:** ikastaro honen bidez, gelaz kanpoko elkarreraginerako jarduerak eta ebaluazio-saioak egin ahal izango ditu ikasleak, baita irakasleak ere. Ikastaro hau, beraz, jardun biko ikasteredua gartzeko tresna da, eta bertan talde-komunikaziorako eta jarraipenerako baliabideak daude erabilgarri. Edonola, **ikastaldeak aukera izango du bestelako baliabideak** (telefono bidezko mezularitza, posta elektronikoa...) erabiltzeko, erosoan egiten zaizkion dinamikak sustatzeko.

- **Primeran! B2 Irakaslearen Liburua:** PDF formatuan argitaratuko den liburu honek jarduera bakoitzaren prozedurarako argibideak emango ditu: jarduera aurretikoak, jarduera berari dagozkionak, aurreikuspenak eta erabilera-aukerak.

Ikasgelan nahiz gelaz kanpo egingo diren jardueren arteko loturak, gelaren kudeaketa, gaiaren zabalkunderako proposamenak eta feedbackerako aukerak ere jasoko ditu.

Irakaslearen Liburuak, atal batean, edukien aurkibide didaktikoa du, non ikastunitatez ikastunitate landu diren edukiak HEOCaren katalogazio-sistemaren arabera sailkatuta dauden.



NOLA ERABILI PRIMERAN! B2.1

Gidaliburu honetan, atalka zehaztu dira irakasleak parte hartzeko tarteak Ikaslearen Liburuko egitekoen baitan eta ordenan.

Jardun biko ikastereduan, irakaslearen egitekoa izango da jarduerak girotzea, horien feedbackak eskaintzea, taldeko elkarreragina kudeatzea... Liburu honetan, kudeaketa horretarako baliabideak proposatu dira, bai komunikaziorako, beharrezko oharrak egiteko hobetsi diren unean uneko kanalak, bai dinamikak bideratzeko eta feedbacka eskaintzeko edukiak eta aholkuak.

Gidaliburu honetan, hauek aurkituko ditu irakasleak:

GAIA

Ikastunitatearen sarreran, gaiaren aurkezpena irakurtzeko aukera izango du; hala, izenburuek iradoki dezaketenetik harago joateko leihatila izango da.

Ikastunitatean gaiari zein trataera eman zaion, nola garatu den eta zein ertz landu diren azalduko zaio, ikasleei aurkezteko baliatu nahi balu ere. Nolabait, ikastunitateek planteatzen dituzten hausnarketan testuingurua eskaintzen da.

GAIA

Publizitatea gure bizitzaren erdigunean dago. Telebistako eta irrati iragarkiak, kartelak... Interneten sozializazioak biderkatu egin du publizitatearen presentzia.

Saltzeko asmotan, iragarleek produktu moderno eta sofistikatuak erakutsi nahi dituzte ohiko iragarkien bidez; horietan, gero eta hedatuago dago ingelesaren erabilera dotorezia ustez. Era berean, teknikarik aurreratuak erabiltzen dituzte gure kontsumoa bideratzeko.

Publizitatea erabiltzen da, halaber, euskara ikasteko grina sustatzeko.

Euskal Herriko eta hemendik kanpoko ikuspegiaren arteko oreka bilatu da gaietara hurbiltzerakoan. Era berean, bermatu nahi izan da ohiko erabilera-esparruetan baliagarriak izango diren eta zeresana eragingo duten egoera eroso eta motibagarriak planteatzea, ikaslearen bizipenetatik urrun ala gertu egon.

PROZEDURAK

Gidari-lanak betetzeko proposamenak jardueraz jardura zehaztu dira. Prozedura-eran jaso dira, jardura bakoitzean ikasleak izango duen egiteko nagusia goiburua dutela. Jardura osatzeko, ikasleari liburuan aurkeztu zaion egitekoa dinamizatu eta kudeatzeko bide eta tresnen nondik norakoak deskribatu dira.

CEKINTZA

Animatu ikasleak euren eskarmentua partekatzea. Hitz egin dezatela gogoan dituzten iragarkiei buruz. Une honetan, pentsatzekoa da ikasleek gaztelaniazko leloak ekarriko dituztela. Jolas zaitzete lelook euskarara ekartzera.

IKASGELAZ KANPOKO LANA

Ikasgelaz kanpoko prozeduretan, irakaslearen eta ikasleen arteko eta ikasleen arteko elkarreragina bideratzeko komunikazio-kanalak eta -baliabideak zehaztu dira, **Moodle Primeran! B2 ikastaroan** izango dituenak.

Jardura hauek egingo dira ikasgelaz kanpo, eta honelako parte-hartzea iradoki zaio irakasleari:

Saioetako A jarduerak: berariaz identifikatuta etxetxoaren ikonoa, ESKOLA AURRETIK nabarmenduta eta atzealde zuridun txartelaz, ikasleari azaldu beharrezkoak proposatu dira. Azalpen horiek emateko, kontuan hartuta ikasleak ez dituela parean izango, irakasleak Moodle Primeran! B2 ikastaroan aurkituko dituen baliabideak erabil ditzake.

Kontuan Hartu ataleko jarduerak:

» Bakarka egitekoak: irakasleak erantzun-orriak izango ditu. Erantzun irekiko jardueretan, Moodle Ikastaroan izango ditu ikaslearekin elkarreraginean aritu eta feedbacka emateko baliabideak.

» Taldeko egitekoak (4, 8, 12 eta 16): irakaslearen parte-hartzea bideratzeko proposamenak egin dira, baita feedbacka ematekoak ere.

- Era berean, ZABALKUNDEA izeneko txartel batzuk aurkituko ditu irakasleak; bat ikastunitateko. Txartel horietan, ikasgelaz kanpo egiteko moduko proposamenen bat egin zaio irakasleari, dela gaiarekin, dela landutako testuarekin lotura duelako... Hautazkoak dira, eta ez daude ibilbide didaktiko nagusian txertatuta.

Liburu honetan, irakasleak erantzun itxiak dituzten jarduerak eta ariketak ere zehaztuta dauzka. Hala ere, feedbacka, unean uneko prozeduretan zehaztuta agertzeaz gain, ez du beti irakasleak berak emango, ikasleen arteko feedbackerako aukerak sustatu baitira; azken finean, egiteko guztiek ez dituzte erantzun itxiak, elkarreraginean osatu eta eraikiko baitira erantzun irekiak. Bestalde, feedbacka ikasleek ekoiztutako lanaren arabera emateko uneak ere prozedura-koardoretan zehaztu dira.

2. eta 4. paragrafoetan esaten dena ez da egia; 1.a erabakitzeke ez daukagu informazio nahikorik; 3.a egia da

Ikasleek irakurgai dituzte, Ikaslearen Liburuan, barka edota gelaz kanpo egin beharreko jardueretan erabiltzeko ikus-entzunezkoen transkripzioak. Irakaslearen Liburuan, berriz, transkripzioak dagokien erabilera-ordenaren arabera jaso dira.

Ikus-entzunezko guztiak Primeran! B2 web-atarian izango dituzte ikasleek eta irakasleak, eta identifikazio-kodeak adieraziko du zein fitxategi-zenbaki den eta zein ikastunitateri dagokion.

[illegible]

Jardueren aurkibide didaktikoa Irakaslearen gidaliburuaren eranskin modura jaso da, eta ikastunitateetan lantzen diren edukiak gaineko informazioa ematen du. HEOCaren hezurduraren arabera.

- Gaien aurkibidea
- Funtzioen aurkibidea
- Adierazpide testualen aurkibidea
- Adierazpide linguistikoaren aurkibidea

Aurkibide honetan, eduki bakoitza zein jardueratan lantzen den eta ikasleek Ikaslearen Liburuan zein orrialdetan aurkituko duten azaltzen da.

PRIMERAN! **B2.1**
EUSKARA IKASTEKO METODOA f

AURKIBIDE DIDAKTIKOA